

# “CALANDRIA“-REN EUSKAL-IZENAK

Gazteleraaz *calandria* ta baita *alondra* deitzen zaion txoriak (*alauda arvensis*, *alauda arborea*, *melanorypha calandra*, etcétera), euskeraz izen asko ditu. Ona emen nik, bai erriaren aotik bai iztegi ta beste orrelako liburuetatik jaso ta bildutako euskal-izenak. Guzitara ogei ta amazazpi dira.

*Alauda* (Lhande, Tournier-Lafitte).

*Alauda-gizen* (Tournier-Lafitte).

*Alauza* (Lapurdi, Lhande).

*Allauda* (Lapurdi, Lhande).

*Aloia* (Araba, F. Baraibar).

*Bortutxori* (Ziberoa, Azkue, Zabala, Lhande).

*Egatxabal* (Zumaia, Azkue, Larrinua-Sansinanea).

*Kalandra* (Arrasate).

*Kalandrixia* (Plazenzia).

*Kalanbria* (Idiazabal).

*Larratxori* (Bizkaia, Zamarripa, Azkue).

*Larretxori* (Lapurdi, Azkue, Tournier-Lafitte).

*Larre-xori* (Baxenabarre, Azkue).

*Laudeta* (Ziberoa, Lhande).

*Llaudeta* (Ziberoa, Azkue, Lhande, Tournier-Lafitte).

*Perripio* (Usurbil).

*Piripio* (Larrinua-Sansinanea).

*Pirripio* (Martutene —Donostia—, Altza, Lezo, Aia, Larri-nua-Sansinanea, J. Garate, Pertika).

*Tordantxa* (Baxenabarre, Azkue, Bera-Lopez Mendizábal).

*Txementxa* (Eskoriatza).

*Txemenentxa* (Oñati, Azkue).

*Txementxar* (Bera-Lopez Mendizábal).

*Txirripio* (Lizardi).

*Txirripitxitxo* (Orio, Zarauz).

*Txirri-txorro* (Azkue, Pertika).

*Txoriandra* (Larramendi, Iztueta, Aizkibel).

*Txoriandra-andi* (Iztueta).

*Txoriandra-bitarte* (Iztueta).

*Txoriandra-txiki* (Iztueta).

*Txorlero* (Leaburu, Bidania, Goiaz).

*Txorrero* (Alegria de Oria, Beizama, Berastegi).

*Txorzabal* (Salvaterra, F. Baraibar, Pertika).

*Troxabal* (Salvaterra, F. Baraibar).

*Txurlio* (Oiarzun).

*Txurrubio* (Amasa).

*Txurruburru* (Asteasu, Larraun, Pertika).

*Txurzabal* (Salvaterra, F. Baraibar).

Gazteleraaz *cogujada* ta frantsesez *alouette huppée* deitzen zaion *calandria* antzeko txoriak, bi euskal-izen ezagun ditu: *Txoriandra-tontorduna* (Iztueta, Aizkibel) ta *mendi-ollar* (Larra-mendi, Tournier-Lafitte). Baña, egia esan, Gipuzkoa'ko erri batzuetan beintzat, *mendi-ollar*, ez *cogujada* edo *alouette huppée'ri*, baizik *huppe* edo *abubilla'ri* deitzen zaio, naiz-ete erri geien-tsuetan *huppe* edo *abubilla'ri argi-ollar* deitzen bazaio ere.

A. ARRUE.